# eingoxonau!

> 2010eko martxoa

1.

Emetasunak itzaletatik
aspaldi egin eban salto,
Berrizen orain egin bageinke
zergatik itxi biharko?
Goazen bideak zabaltzen gure
aldizkariarentzako,
letra moreez ere historia
idatzi leitekelako.

Miren Amuriza




II. kartel lehiaketa irabazlea:
«Hodeietan blai»
Sandra Hernandez Petrel


Zer egin indarkeria edo erailketa kasuetan? > Udal jarduerak eta errekurtsoak

2010eko martxoak 8 > Egitaraua

Agenda

Emakumeen askatasuna eta abortuaren normalizazio osoa

Jabekuntza eskolak > Elkarrizketak



BERRIZKO UDALA > Berdintasun Saila > 94 682 40 36 > berdintasuna@berriz.org > www.berriz.org

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

BFAk diruz lagunduta

AURKEZPENA

**E**skuartean duzuen Udal aldizkari hau Udal Berdintasun Sailetik prestatu dugu. Asmoa, urtean zehar 3 aldizkari egitea eta zuen etxeetara bidaltzea.

Aldizkari honek emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna helburu duten gai, artikulu, ikastaro eta abarren inguruko informazioa lantzeko erreminta izan nahi du. Alde batetik, udaletik antolatzen ditugun ekintza edota proiektuen berri izango duzue eta bestalde, egunerokotasunean emakumeongan eragina izan dezaketen gai desberdinen inguruko artikulu, arau, edota informazioa eskainiko dizuegu.

Kontuan izanik, zuen partehartzea beharrezkoa dela, Berdintasun zerbitzua eta helbide elektronikoa eskura dituzue, zuen iritzik emateko, intereseko diren gaien inguruko informazioa jasotzeko, zalantzak argitzeko edota iradokizunak bidaltzeko.

Orri hauetako informazioa interesgarria izango delakoan, agur bero bat.

**Pili Sanz Berasaluze**
Berdintasun arloko zinegotzi arduradura

PRESENTACIÓN

*El boletín que tienes en tus manos, es el primero de los 3 ejemplares que el Área de Igualdad del Ayuntamiento ha previsto publicar este año.*

*Esta revista pretende ser otra herramienta más, tratando, temas, artículos, información sobre cursos, en el trabajo para lograr la Igualdad de Oportunidades entre mujeres y hombres. Por una parte recogerá la información sobre actividades, proyectos que se impulsen desde el ayuntamiento y por otra parte, también se pretende que se publiquen artículos, normativa o información que pueda interesar o afecten a las mujeres.*

*Sabemos que la participación ciudadana es vital en este trabajo, y para la consecución de los objetivos ya que los cambios que puedan surgir nos afectaran de manera directa o indirectamente. Por eso ponemos a vuestra disposición el correo electrónico y el servicio de igualdad.*

*Espero que la información que se publique en esta revista sea de vuestro interés.*

**Pili Sanz Berasaluze**
*Concejala del Área de Igualdad*

UDAL JARDUERAK ETA BALIABIDEAK

## ERAHILKETA KASUETAN, ZER EGIN?

**B**errizko udalbatzak aho batez onartu zuen, 2009ko udan, Euskal Herrian, indarkeria matxista eta erasoen ondorioz emakumeen erailketa gertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egitea.

Erailketa Berrizen gertatzen bada, hildako emakumea berriztarra izan edo une horretan, berton bizi bada, Eusko Jaurlaritzak eta Emakundek onartuta daukatenaren arabera, udalbatza ez ohikoa egingo litzateke eta salaketa ekintzak adostu. Gainerakoetan, **salaketa publikoa** egiteko **kontzentrazio** deialdiak egingo dira, ahal bada **biharamunean iluntzeko 7:30ean Urtiaga Plazan** eta eraikin publikoetan **lazo zuria** eskegiko da.

## INDARKERIA MATXISTA JASATEN DUTEN EMAKUMEENTZAKO BALIABIDEAK

TRATU TXAR FISIKO, PSIKOLOGIKO EDO SEXUALAK JASATZEN BADITUZU **ARGI IZAN EZ DELA ZURE ERRUA ETA LAGUNTZEKO BALIABIDEAK DITUZULA**, INGURUKOREN BAT EGOERA HONETAN BADAGO ERE, LAGUNDU DIEZAIOKEZU.

### BERRIZKO UDAL ZERBITZUAK

- **Gizarte zerbitzuak: 94 682 45 25**

Zerbitzu honetan erakunde eta baliabide desberdinekin kontaktuan jarriko zaituztegu.

- Laguntza psikologikoa
- Aholkularitza juridiko doakoa eskatzeko tramiteak
- Laguntza ekonomikoak
- Salaketaren inguruko informazioa

- **Berdintasun arloa: 94 682 40 36**

Emakumeen jabekuntzaren inguruko informazioa jaso dezakezue, eta bizitza normalizatua lortzeko urratsak emango ditugu elkarrekin.

- **24 orduko zerbitzuak: 112** larrialdiak
- **Laguntza psikologikorako DOAKO telefonoa: 900 840 111.** Bezeroentzako arreta: euskaraz, gazteleraz, ingelesez, frantsesez, txineraz, errumanieraz edota arabieraz.

ACCIONES MUNICIPALES Y RECURSOS

La corporación municipal aprobó en pleno el año 2009, el protocolo de denuncia publica para casos de maltrato y agresiones sexistas hacia las mujeres, con resultado de asesinato. Si hay una víctima o los hechos hayan ocurrido en Berriz, se actuará según el procedimiento aprobado por el Gobierno Vasco y Emakunde, celebrando **un pleno extraordinario** para acordar las actuaciones a seguir.

En los demás casos, habrá una **denuncia pública** por cada mujer asesinada. Fijando el día de la **concentración en la plaza Urtiaga, a las 19:30**. Se colocarán **lazos blancos** en los edificios públicos.

SI SUFRES MALTRATO FISICO, PSICOLÓGICO O SEXUAL, TEN CLARO QUE TU NO ERES LA CULPABLE Y QUE DISPONES DE RECURSOS QUE TE PUEDEN AYUDAR, SI ALGUIEN DE TU ENTORNO SE ENCUENTRA EN ESA SITUACION TAMBIEN PUEDES AYUDARLE:

**SERVICIOS MUNICIPALES**

- **Servicios sociales 94 682 45 25.** Te pondrán en contacto con, Apoyo psicológico, Tramitación de Asesoría Jurídica gratuita, Ayudas económicas e Información relativa a la denuncia
- **Área de Igualdad: 94 682 4036** información entorno al empoderamiento de las mujeres, y trataremos de ayudarte para que consigas normalizar tu vida.
- **Servicios de 24 horas: emergencias 112.**

## INFORMAZIO GEHIAGO

### Akosoa beharrean

Lan eremu pribatuan, sexuagatiko diskriminazioa jasaten ari bazara edo horren susmoa izan, defentsoria erakundean informazioa eta aholkularitza eska dezakezu. **945 016 550 telefonoan** edota **defentsoria@ej-gv.es**

### Berdintasunaren inguruko web orriak

**www.berriz.org** berdintasun saila klikatu
**www.eudel.net** berdinsarea klikatu sarean
**www.emakunde.euskadi.net**
**www.bizkaia.net** ahaldun nagusiaren kabinetea
**www.mujeresenred.org**
**www.escueladefeminismo.org**
**www.agendadelasmujeres.com**
**http://masterkas.nireblog.com/**
Berdintasunaren inguruan informazioa jaso nahi duten gizonentzat: **http://www.ahige.org**

GURE IZARRAK
*Berrizko Emakumeen Taldea*

### «Gure Izarrak» Berrizko Emakumeen elkartea

Talde hau herriko emakumeek osatzen dute eta bertan hainbat ekintza/ekitaldi antolatzen dituzte; eskulanak eta artisautza, yoga, birziklapena, etorkinentzako gaztelerazko ikastaroak, photoshopa... eta jardunaldiak, besteak beste, otsailaren 23an emakumeon bihotzeko gaixotasunen prebentzioari buruzko hitzaldia antolatu zuten. Ekainera bitartean, hileko azken ostiraletan **barreterapia eta gorputz adierazpen tailerra** antolatu dute. Lehengo osasun zentroan batzen dira. Harremanetarako: **665 720 663** / *gureizarrak@kzgunea.net*.

• **Teléfono** **gratuito** **de apoyo psicológico: 900840111.** Atienden en euskera, castellano, inglés, francés, chino, rumano y árabe.

**ACOSO LABORAL**
Si sufres discriminación por sexo en el ámbito laboral privado puedes recurrir a defentsoria para la igualdad allí te asesorarán del procedimiento a seguir. 945 016 550 o defentsoria@ej-gv.es

**PÁGINAS WEB RELACIONADAS CON LA IGUALDAD**
**www.berriz.org**
**www.eudel.net**
**www.emakunde.euskadi.net**
**www.bizkaia.net**
**www.mujeresenred.org**
**www.escueladefeminismo.org**
**www.agendadelasmujeres.com**
**http://masterkas.nireblog.com/**
Pagina WEB para hombres.
**http://www.ahige.org**

**«GURE IZARRAK», ASOCIACIÓN DE MUJERES DE BERRIZ**
Este grupo de Mujeres de Berriz, organiza entre otras actividades, talla de madera, artesanía, yoga, reciclaje, habla hispana para inmigrantes, photoshop... Han organizado temas más específicos como la charla sobre prevención ante problemas cardiacos en mujeres el 23 de febrero.
Los últimos viernes de cada mes hasta junio han organizado **Risoterapia y expresión corporal.**

Se reunen en el Ambulatorio viejo. Para más información **665 720 663 / gureizarrak@kzgunea.net**

## AGENDA

### • martxoak 7

**12:00etan, «AÑEKETAN» I. EMAKUMEEN KARRERA**
**12:00ak arte,** futbol zelaian izen ematea eta dorsal banaketa.
**Ibilbidea:** Futbol zelaitik Abeletxera, Iturritza eta BBK ondotik Zengotitabengoa kaletik Matzagabarrena paseora, Geltoki kaletik Fonda ezkerrean laga eta barriro Zengotitabengoatik Kultur Etxe ostetik bajatu barriro Geltoki kalera eta Kultur Etxe aurrean helmuga. **Sariak:** Lehengoari, nagusienari eta gazteenari. **SARI BANAKETA ETA LUNTXA.**

**20:00etan, kultur etxean**
**ANTZERKIA: «HAUXE DA PARADERU!»**
Ondarroako Tramana ta Brix emakumeen antzerki taldea. Sarrera: 5 euro.

### • martxoak 8
**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

**EGUN OSOAN ZEHAR, Learreta Markina eskolan IPUIN KONTALARIAK.**

**INSTITUTUAN, ANTZERKI SAIOA ETA KARTEL LEHIAKETAKO SARI BANAKETA.**

**18:30ean, Gure Izarrak-en elkartean KAFEA ETA PASTAK.**

**19:30ean, Urtiaga Plazan KONTZENTRAZIOA. Ostean, ANTZERKI SKETXA: «SEXUA»**
GABERDI taldea.

### • martxoak 11
**2010 EMAKUMEEN MUNDU MARTXA EUSKAL HERRIAN**
Egun honetan, Zornotzatik Ermura bitartean ibiliko da martxa. Joan nahi duenak informazioa eskatu berdintasun sailean.

### • apirilak 23 LIBURUAREN EGUNA

**"Emakumeak literaturan" ERAKUSKETA KULTUR ETXEAN**
Jasone Osoro, Txaro Arteaga, Gloria Fuertes, Miren Agur Meabe, Mariasun Landa, Marian Keyes, JK Rowling, Lucia Etxebarria, Isabel Allende, eta nola ez, Simone de Beauvoir.

Gizonei erreserbaturiko tokietan, emakumeen partaidetza eskubidea izateko borrokatu dabe, hitza, idatzia eta konpromezu politikoaren bidez,

**ERAKUSKETAK BISITA GIDATUAK izango ditu:** Bisita antzezle batek gidatzen dau. Bisita ordua zehazteko ezinbestekoa da Berdintasun sailean edo Kultura Sailean eskatzea.

### •maiatzak 28
**EMAKUMEEN OSASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EKINTZA EGUNA**
Egun honetan zerbait zehatza landu nahi baduzue deitu edo bidali e-mail bat berdintasun sailera.



# EMAKUMEEN ASKATASUNA ETA ABORTUAREN NORMALIZAZIO OSOA

Mari Luz Esteban

Haurdunaldiaren Borondatezko Etenaren eta Sexu eta Ugalketa Osasunaren lege aurreproiektua onartu zuen maiatzaren 14an Espainiako Gobernuaren Ministroen Kontseiluak, azken urteetan hainbat klinikek bizi izan dituzten eskumaren eta poliziaren salaketak direla medio, feministek egoera juridikoa eta sanitarioa hobetzeko egin dituzten aldarrikapenei erantzunez.

Dakigunez, lege berriaren ondorioz, emakumeek 14 aste baino gutxiagoko haurdunaldia eten egin ahal izango dute inolako baldintzarik gabe, eta hortik aurrera, 22. astera arte, abortatzeko aukera izango dute zenbait kasutan (fetoaren eta emakumeen osasun arazo larriak daudenean) baina oraingoan medikuen oniritziarekin.

Lege erreforma honek garrantzi sinboliko handia du zeren eta, tarte batean behintzat (lehen 14 aste horiek), emakumeen askatasuna izango baita nagusi eta emakumeek ez dute berriro agertu beharko gaixo mental gisa abortu bat egin ahal izateko, gaur egungo egoera babesgabe barruan gehien erabiltzen den arrazoi legala baita buru osasunarena.

Baina lege aurreproiektuak baditu zenbait puntu beltz. Horien artean, hiru nabarmendu nahi nituzke artikulu honetan. Lehena, 14. asteko epea laburregia dela. Bigarrena, 14-22. asteen artean emakumeen askatasuna baldintzatua suertatzen dela. Eta hirugarrena, 22. asteko muga horrek arazo larriak dituela, zeren eta fetoaren malformazioen diagnostiko medikoak aste hori gainditzen du sarri. Zirkunstantzia horietan zer egingo den ez dago argi baina, ziur asko, atzerrira joaten jarraitu beharko dute emakumeek.

Guzti honen inguruan Euskal Herriko feministok plazaratu ditugun aldarrikapenak hiru ildotan laburtu daitezke: emakumeok abortatzeko dugun eskubidea, abortua osasun sistema publikoan eta doan izan behar dela, eta abortuaren gaia kode penaletik ateratzea ezinbestekoa dela (lege berrian zenbait kasutan abortua delitu izaten jarraituko du eta). Ideia hauen atzean baldintzarik gabeko emakumeen askatasuna dago. Baina iruditzen zait gaur egun, abortua lehenengoz legeztatu zenetik 30 urte pasatu direnean, diskurtso ausartagoak eta gaurkotuagoak egin beharko genituzkeela.

Azken urteetako datuen arabera, Estatu Espaniarreko emakumeen % 88k lehen 12 asteen barruan abortatu ohi du, beraz gehiengo absolutua, eta besteen artean, % 2k soilik egiten du 21. astetik aurrera. Honek zer esan nahi du? Beste gauza askoren artean, emakumeek argi eta garbi erakutsi dugula gure heldutasun maila altua, ondo baino hobeto kudeatzen ari baikara gure ugaltze eta abortatzeko eskubidea. Beraz, zergatik ez eskatu tinko eta ozen abortatu ahal izatea 22-24.

## La libertad de las mujeres y la completa normalización del aborto

**Artículo escrito por Mª Luz Esteban en 2009 a petición del Ayuntamiento de Berriz**

El anteproyecto de ley de interrupción voluntaria del embarazo y salud sexual y reproductiva, se aprobó el 14 de mayo, por el Consejo de Ministros de España, viene a demanda de las feministas que reclamaban la mejora de la situación jurídica y sanitaria en respuesta a la represión y denuncias que sufrían algunas clínicas por parte de la derecha y la policía.

Sabemos, que hasta las 14 semanas las mujeres podrán interrumpir el embarazo sin ninguna condición, a partir de ahí hasta 22 semanas, con el consentimiento de los médicos en algunos casos (problemas graves de salud para el feto y la madre).

Esta reforma de la ley simbólicamente tiene una gran importancia ya que por lo menos en las primeras 14 semanas lo principal es la libertad de las mujeres sin tener que presentarse como enfermas mentales, como hasta ahora.

El anteproyecto ya tiene unos puntos oscuros, y quisiera hacer hincapié en tres. Primera, el plazo de 14 semanas es demasiado corto. Segundo, entre las semanas 14-22 la voluntad y libertad de las mujeres esta condicionada. Y la tercera, los diagnósticos de malformación del feto superan ese plazo, y no se aclara que se hará en esos casos, por lo que seguramente, las mujeres tendrán que seguir saliendo al extranjero.

Ante todo esto, las feministas de Euskal Herria, queremos publicar nuestras reivindicaciones en tres líneas: el derecho a abortar de las mujeres, en el sistema público de la salud y gratuito, y que se saque este tema del código penal (ya que en la nueva ley hay casos recogidos como delito). Tras estas ideas, está la libertad sin condiciones de las mujeres y después de 30 años que se legalizó el aborto por primera vez el discurso debería ser más valiente y actualizado.

Según los datos de los últimos años el 88% de los abortos que se practican en el estado español, son dentro de las 12 primeras semanas; a partir de la semana 21 sólo el 2%.¿Qué demuestra esto? Que gestionamos bien el derecho a

astera arte inolako baldintzarik gabe (hau da, fetoa bideragarria den arte) eta hortik aurrerako abortu baldintzatua zenbait kasu larri eta berezietarako?

Badago beste gai bat aurrekoa baino garrantzitsuagoa oraindik ere. Abortuaren aldeko XXI. mendeko jarduera politiko berritu batek eduki nahitaezko bat izan behar du: abortuaren normalizazioa, zentzu guztietako normalizazioa: juridikoa, sanitarioa, soziala, bizipenarena... Eta hau ere oraindik garatzeko daukagu.

Abortua, harreman heterosexual koitalak dituen edozein emakumeren ugaltze prozesuan zehar eman daitekeen beste gertakari bat baino ez da, antisorgailuak edo koito ondorengo pilula hartzea, erditzea, edoskitzea... eta beste gainerako guztiekin parekagarria. Eta honek ez du esan gura haurdunaldia eteteak ez dituenik alde berariazkoak edo ez garenik kezkatu behar abortuen kopuruaren igoeraz edo gazteek zein gazteak ez direnek jaso beharko luketen heziketa sexualaz. Ez. Baina abortua baliabide bat baino ez da eta, emakumeen gorputzaren baitan gertatzen den zerbait izanik eta beste edozein gorputz prozesutan egin beharko litzatekeen modu berean, pertsonak berak izan behar du azken erabakia, eta gainerako guztiak (lagunak, senideak, profesionalak, politikoak) informazioa eta laguntza emateko daude, ez gehiagorako ezta gutxiagorako ere.

Normalizazioaren aldeko beste kontu bat: haurdunaldiaren lehen asteetan egiten den abortuak (farmakologikoa zein kirurgikoa), teknikoki, ez du batere zailtasunik. Hau da, gizarte egoera normalizatu batean emakumeek ez lukete halabeharrez bizipen txarrik edo gogorrik izan beharko.

Noizean behin esaten da ez dagoela abortatu nahi duen emakumerik. Ikuspegi hori, nire ustez, ez da ez egokia ezta egia ere, eta ez du laguntzen abortuaren normalizazioan. Euskal Autonomia Erkidegoko emakume asko eta asko abortua modu lasai eta errazean daude bizitzen (Nafarroakoek askoz zailago daukate ez baitute bertan abortatzeko zentrorik), eta honek ez du esan gura arduratsuak ez direnik edo moralik ez dutenik. Izan ere ez dago etika edo moral bakarrik. Are gehiago, edozein gairen inguruko irakurketa moralak aldatuz doaz, etika ez delako ezer absolutua, testuinguru baten barruko interes eta jarrera askoren arteko eztabaida eta adostasunen ondorioa baizik. Eliza Katolikoaren abortuaren kontrako jarrera, esate baterako, jarrera etiko bat baino ez da, gainera, fededun askoren ikuspegiekin bat ez doana.

2009. urtean, gure gizarteko emakumeen (eta gizonen) gehiengo osoaren irudikoz, haurdunaldi bat etetea moralki eta sozialki onargarria den ekintza bat da. Abortuaren normalizazio erabatekoa lortzea da, beraz, eman behar dugun hurrengo urratsa.



la reproducción y al aborto y el nivel de madurez que tenemos. Por lo tanto, ¿por qué no exigir el derecho a abortar sin condiciones entre las semanas 22 y 24 y de ahí en adelante para casos graves y especiales?

Hay otro tema importante, en el siglo XXI. La normalización del aborto, en lo jurídico, sanitario, social, vivencia... Y esto esta por desarrollar.

El aborto es una situación más que puede ocurrir en mujeres con prácticas heterosexuales y coitales, equiparable a otras situaciones como el uso de anticonceptivos, la pastilla del día después, el parto, la lactancia... Esto no implica que la interrupción voluntaria del embarazo no tenga características especificas y no nos preocupemos del aumento del numero de abortos, o de la educación sexual que deberían recibir las jóvenes y no tan jóvenes. No. Pero la interrupción voluntaria del embarazo es una opción más, y dado que es un hecho que se produce en el cuerpo de las mujeres, tal y como se desarrolla en otros procesos del cuerpo, la propia persona debe tener la última palabra y las demás (amigas/ os, familia, profesionales, políticos) están para informar y ayudar, ni para más ni para menos.

Otro punto para la normalización: el aborto practicado en las primeras semanas, (sea farmacológico o quirúrgico), técnicamente, no tiene ninguna dificultad. Esto es, en una sociedad normalizada, las mujeres no deberían sentir a la fuerza ninguna vivencia mala o dura.

A veces se dice que no hay mujeres que quieran abortar. Ese punto de vista ni es adecuado ni es verdadero. Muchas mujeres de la Comunidad Autónoma Vasca están viviendo esa situación de una manera tranquila y fácil (las navarras lo tienen mas difícil ya que no cuentan con centros para abortar) y esto no significa que no son responsables o no tengan moral. Ya que no hay una única ética o moral. Las lecturas morales van evolucionando, la ética no es absoluta y varía en función de los debates del entorno, los intereses. La oposición de La Iglesia Católica al aborto es sólo una posición ética, por cierto, no compartida con muchos/as creyentes.

En el año 2009, en el imaginario de la mayoría de las mujeres (y hombres),la interrupción del embarazo es moral y socialmente aceptable. Por lo tanto, el siguiente paso debe ser el conseguir la completa normalización del aborto.

# AHALDUNTZEA JABEKUNTZA

## ZER DA?

Beijingen, Emakumeen Munduko konferentzian, agertu zen kontzeptu berria; emakumeen partehartzea zabaltzeko erabakitze guneetan eta boterera heltzeko.

Kontzeptu honek, aldi berean beste dimentsio bat dauka; kontzientzia hartzean datza, banaka edota taldeka, emakumeok gure duintasuna pertsona bezala, autoestimua, autonomia pertsonala eta boterearen jabetza. Hori izango delarik, inguru ekonomiko, sozial eta politikoan partehartzea bermatzeko bidea.

Marcela Lagardek, jabekuntza, eraldatze prozesu bezala definitzen du; emakume bakoitzak lehenago edo geroago, historia, política eta Kulturaren objektu izateari utzi eta bere bizitzako subjektu bihurtzen da; hau da, emakumea prestatzen eta kontzientzia hartzen hasten da, bere eskubideak aldarrikatuko ditu, bere nahiak lortzeko prestatuz eta horretan sinistuz.

Prozesu hau ezinbestekoa da kontuan hartzen bada, emakumeoi momentu oro, aginte aukera kendu digutela eta ditugun, ezarri dizkiguten zailtasunak ikusita, gaitasuna lortzeko, baloratuak izateko eta onartuak sentitzeko aukera bat da.

Lagarde, M. (2007)
*Claves para el empoderamiento de las mujeres.* I *Congreso Mujeres en el Mundo Liderando el Milenio*, Valencia
*Palabras para la Igualdad*. Biblioteca Básica Vecinal.

## NOLA EGIN JABETZE PROZESUA?

Ahalduntze, jabetze edo jabekuntza prozesua aurrera eramateko, **kontzientzia hartze eta aldaketa pertsonala** egon behar da. Ondoren taldeka antolatu eta gizartean eragitea aldaketa hori gauzatzeko.

Beraz, prozesua aurrera eramateko emakumeon nahia eta beharrei begiratu behar diegu. Eta horretarako planteamendu bi egin dira udaletik.

Alde batetik, **prestakuntza saioak**; metodologia hau inguruko herrietan be zabaldu da. JABEKUNTZA ESKOLAK dira. Inguruan 3 kasu ditugu; Ermua, Durango eta Arrasate.

Prestakuntza saio hauek genero ikuspegia lantzen dute. Bizitzako hainbat alorretan gizarte patriarkalak duen eraginaz ohartarazteko.

**Lan ildoak eta gaiak** hainbat izan daitezke:
- Emakumeonganako indarkeria
- Teoria feminista
- Solidaritatea beste herrialdeetakoemakumeekin
- Elkartegintza
- Artea, kultura
- Osasuna emakumeon ikuspuntutik

Prestakuntza saioez gain, Berrizko Udaleko Berdintasun Saila, **"Dokumentazio Zentroa"** osatzen ari da. 2009an hasi ginen dokumentazio zentro horretan gai desberdinetako liburu eta dokumentuak biltzen.

Zentro honetako materiala eskuragarri dago herriko emakume guztientzat: norbanako, ikasleentzako, elkarteentzako...

**Sexualitate eta maitasunaren inguruko liburuak:**
*Teoria King Kong*
*El amor no es como nos lo contaron*
*Mujeres malqueridas*
*El segundo sexo* (teoria feministaren oinarrizko liburua) Simone de Beauvoir

## EMPODERAMIENTO, ¿QUÉ ES?

Término acuñado en la Conferencia Mundial de las Mujeres en Beijing para referirse al aumento de participación de las mujeres en los procesos de toma de decisiones y acceso al poder.

Esta expresión también comporta otra dimensión: la toma de conciencia del poder que individual y colectivamente ostentan las mujeres y que tiene que ver con la recuperación de la propia dignidad de las mujeres como personas, con un crecimiento de la autoestima, con la autonomía personal y con la adquisición de poder, lo cual garantiza la participación en contextos económicos, sociales y políticos.

Marcela Lagarde define empoderamiento como el proceso de transformación mediante el cual cada mujer, poco a poco, o a pasos gigantes, deja de ser objeto de la historia, la política y la cultura, deja de ser objeto de los otros y se convierte en sujeto de su propia vida, en protagonista de la historia, la cultura, la política y la vida social. Dicho de otra forma, es un proceso a través del cual cada mujer se faculta, se habilita y desarrolla la conciencia de tener derecho a tener derechos y a confiar en la propia capacidad para conseguir sus propósitos. Este proceso se hace necesario si se tiene en cuenta la constante desautorización de las mujeres y las dificultades con que se encuentran para poder capacitarse y sentirse valoradas y reconocidas.

Lagarde, M. (2007). *Claves para el empoderamiento de las mujeres. I. Congreso Mujeres en el Mundo Liderando el Milenio*, Valencia
*Palabras para la Igualdad*. Biblioteca Básica Vecinal

### ¿COMO SE REALIZA UN PROCESO DE EMPODERAMIENTO?

No existe un formula mágica, no se logra o consigue con una acción o formación. No es un título que acredite que un persona este "empoderada", cada proceso es único porque es un proceso personal, de **toma de conciencia individual**, para llevar a cabo un trabajo colectivo **que incida en un cambio social.**

Es imprescindible conocer y reflexionar sobre las necesidades de las mujeres, por lo que desde el ayuntamiento comenzamos con dos planteamientos distintos. Po una parte, organizamos, sesiones formativas, siendo esta metodología utilizada como vía de trabajo en nuestro entorno ejemplo, los municipios de Ermua, Durango y Arrasate.

Estas sesiones siguen unas **líneas de trabajo** que pueden ser:
- Violencia contra las mujeres
- Teoría feminista

## BERRIZKO JABEKUNTZA SAIOAK





**Urtarrilaren 22tik ekainaren 11 bitartean**
**Barikuetan Berrizko Kultur Etxean,**
**arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara**

**Lehenengo atala, SEGIKA DITUDAN MAMU FEMENINOAK:** Eroa, sorgina, emagaldua, gaixoa, ona, gaiztoa... Nor naiz ni? Irudi hauek urteetan segika izan ditugu, gu kontrolatu eta gure indarra geldiarazteko. Atal honetan, nondik ageri diren, ze rol betetzen duten eta nola gaur egun ere gizarte honetan ageri diren. Euren jatorria ezagutu lotura hori apurtzeko.

**Bigarren atala, SEXUALITATEA NORBERARENGAN:** gizarteko aginduak, rolak, tabuak, beldurrak... landuko ditugu, nola mugatzen gaituzten gure gorputz eta harremanetan.

**Hirugarren atala, Emakumeen arteko harremanak ZINEAREN BIDEZ** landuko ditugu.

**Apirilak 16tik ekainaren 4ra bitartean.**
**13-16 urte bitarteko neskentzat**
**Guztira 16 ordu: 2 orduko 8 saio**

**SEXUALITATE TAILERRA:**
Neska gazteok geure sexualitatea era libre eta osasuntsu batean bizi, beste neska edo mutilekin berdintasunean oinarritutako harremanak eraikiz.

**Landuko diren gaiak:**
Sexualitate kontzeptua: sexua sexualitate erotikoa. Gorputza, hilekoa, edertasun ereduak, gozamena, sexu jokabideak, moral bikoitza, sexu orientazioa, maitasuna, arriskuak, indarkeria sexista eta nola ekidin.

Zalantzarik izanez gero,
informazio gehiago jaso
edota izena emateko:
**94 682 40 36** edo
**berdintasuna@berriz.org**

- Solidaridad con mujeres de otros pueblos, naciones.
- Asociacionismo
- Arte y cultura
- Salud desde el punto de vista de las mujeres.

Creación y provisionamiento de un **"Centro de Documentación"** comuesto por material, libros de tematica feminista y especializada en violencia, sexualidad. Este material esta disponible para cualquier mujer del pueblo que individual o colectivamente quiera tratar un tema, para las estudiantes...

**Libros entorno a la sexualidad y al amor:**
*Teoria King Kong*
*El amor no es como nos lo contaron*
*Mujeres malqueridas*
*El segundo sexo* (libro base de la teoría feminista) Simone de Beauvoir

**SESIONES DE EMPODERAMIENTO EN BERRIZ:**

**>>>22 enero/ 11 junio**
**Viernes Kultur Etxea, de 16:00 a 18:00 de la tarde**

**LOS FANTASMAS FEMENINOS QUE ME PERSIGUEN**, la loca, la bruja, la puta, la enferma, la buena, la mala... ¿Quién soy yo? Estas imágenes nos persiguen y pueden paralizarnos... Analizaremos estos roles: cómo nos afectan hoy en día y cómo poder romper con ellos.
**SEXUALIDAD EN PRIMERA PERSONA**, como nos coartan en las relaciones y con nuestros cuerpos los mandatos sociales, los roles, los tabues, los miedos...

Y por último en el tercer bloque, analizaremos, **LAS RELACIONES DE LAS MUJERES A TRAVES DE CINE.**

**>>>16 abril / 4 junio**
**Para chicas entre 13-16 años. 16 horas, 8 sesiones de 2 horas**

**TALLER DE SEXUALIDAD: ¿Vivimos las chicas jóvenes nuestra sexualidad de una manera, libre y saludable basándonos en relaciones de tu a tu incluso con los chicos?**

Trataremos: El concepto de sexualidad, sexo, sexualidad, erótica. Cuerpo, menstruación, modelos de belleza, placer, prácticas sexuales, doble moral, opciones sexuales, peligros, violencia sexista y como enfrentarse.

Para aclarar dudas o pedir más información:
**94 682 40 36** / berdintasuna@berriz.org

# JABEKUNTZA SAIOETAKO PARTAIDEEKIN BERBETAN

## CHARLANDO CON LAS PARTICIPANTES DE LA ESCUELA DE EMPODERAMIENTO

**Ahalduntzea, jabekuntza maila teorikoan zer den azaltzen saiatu ondoren, jabekuntza saioetako partaide diren bi emakumeren iritziak jaso ditugu.**

### CRISTINA HAZAS ZABALA (Eibar, 1961)

**¿Cómo valoras tu trayectoria en estos cursos?**
En el año 98, el ayuntamiento empezó a organizar unos talleres de mujer y salud, y trabajábamos varios temas distintos: yoga, danza, risoterapia, alimentación, menopausia, maltrato hacia las mujeres... De aquellos cursos a los cursos que se trabajan hoy en día creo que he aprendido mucho... Para mi una cosa que ha cambiado o he cambiado, es la idea que tenía: he roto los esquemas en cuanto a las palabras; hablábamos de género, igualdad, y hoy en día hablo de feminismo; he roto con esa idea del "feminismo" aprendido, sobre más temas, las definiciones de las palabras, hacemos debates sobre distintos temas. Creo que ahora conozco mejor mis derechos y he aprendido a defenderme.

Como ejemplo, yo comparo la idea, que nos enseñaban desde pequeñas: el respeto al padre que lo confundimos con la obediencia y no contestación o defensa de una misma, trasladando esa idea a la del jefe y mantienes esa posición de sumisión. Cuesta mucho romper con esas ideas de sumisión arraigadas desde pequeña pero se puede conseguir: es romper con lo que decían " lo que yo digo va a misa", y se aprende a romper con ello.

**¿Qué dirías a otras mujeres o como las animarías?**
Sales de casa, aprendes mucho, compartes ideas, se organizan debates. No es ninguna "terapia para mujeres". Yo les animaría a que vinieran, que vean y que participen, y si les gusta y quieren aportar ideas nuevas, que sigan y si no están a gusto o no les interesa pues que lo dejen. Pero primero que vengan y vean.



### ZALOA ARNEDO URUTXURTU (Berriz, 1981)

**Zergatik eman zenuen izena ikastaro honetan?**
Pertsonalki eta arlo profesionalean gai batzuk hausnartzeko balioko zidala pentsatu nuen eta herriko ekintza baten parte hartzeko gogoa nuen beti kanpoan entzuten baitira programa hauek.

**Zerbait ikasi duzu?**
Pertsonalki, tresna berriak jaso ditut, askatuago sentitu naiz, emakumeekin ere lan asko egiten dut lana, eta "ikasle" ikuspuntutik gauza asko ikasi eta gauza askotaz konturatu naiz.

Gai asko birplanteatzen dituzu ,adibidez, parte hartu aurretik pentsatzen nuen ni emakume gaztea izanik badaudela gai batzuk nigan eraginik ez dutenik baina konturatzen zara txikikeria asko daudela egunerokotasunean gure bizitza baldintzatzen dutenak; horren zergatiak aurkitzen badituzu, uste dut hobeto egon zaitezkeela.

Emakumeok ez dugu soilik indarkeria matxista fisikoa jasaten, badaude normaltasun osoz ematen diren "mikromatxismoak" eta horiek ez badira ikusten, arazoa handiagotuz joan daiteke; telebistako mandoa, autoa... eta komentarioak, adin batetik aurrera, "arrosa pasatuko zaizula", familia izatearena, itxura fisikoaren presioa, "zer esango" ote duten....

**Zure adinekorik ez dago ikastaro hauetan, zer esango zenieke?**
Animatzeko eta baliagarria bada edo ez, zer egin erabaki dezatela.

Nork daki, hemen elkar ezagututa, agian beste ikastaro proposamen berriak, talde edo ekintzak abiatu daitezke. Eskemak apurtzeko eta hausnarketarako guneak edukitzeko garrantzitsua ikusten dut eta bakoitzak aurkitu dezake hemen edo hau amaitzean, eztabaidarako toki bat... elkar trukerako gune bat abiatu daiteke.



Hurrengo buletinean gehiago, eta badakizu, zalantzak, galderak, proposamenak jasotzeko edota zalantzak argitzeko, deitu edo bidali email bat **berdintasuna@berriz.org** -era eta gustura erantzungo dizugu.

En el próximo boletín daremos más información y si tienes dudas, preguntas o quieres proponernos algo, llama o manda un e-mail a **berdintasuna@berriz.org** y te atenderemos gustosamente.